

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2024ko martxoaren 21a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 2023ko 4. hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 2.- 2023ko udal-aurrekontuaren 4. hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 3.- Urtarrilaren 30eko 82/2024 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 1/2024 zenbakidun kreditu-aldaketa onartzen du, kreditua txertatzeko modalitatean.

- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 3/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 6.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-erregelamenduaren aldaketari.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Udaleko gazteria- eta kirol-teknikariak aurkeztutako eskaera bateragarritasunari buruz.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa, pentsiodun guztiek 1.080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzeari buruz, 14 ordainsaritan.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2023KO 4. HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

2.- 2023KO UDAL-AURREKONTUAREN 4. HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.- URTARRILAREN 30EKO 82/2024 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 1/2024 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETA ONARTZEN DU, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Urtarrilaren 30eko 82/2024 alkate-dekretuaren bidez onartutako 1/2024 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 2.053.116,38 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2/2024 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2/2024 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 70.651 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko martxoaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 2/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 70.651 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 3/2024 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2024 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 290.211 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko martxoaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 3/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 290.211 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL-ERREGELAMENDUAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2024ko martxoaren 8an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA etxez etxe laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-erregelamenduaren aldaketari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal-erregelamenduaren aldaketa hori, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Udal-erregelamenduaren aldaketa hori interesatuen eskura jarriko da udal-idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era. Jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-erregelamenduaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Emandako botoak azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du laster egingo dela zaintza-zerbitzuen eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kontratazio publikoa. Beraz, gaia aztertu ondoren, baliteke Orioko etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-erregelamendua berriro aldatu behar izatea.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du hasiera batean bi urteko indarraldia daukala udalbatzar honetan onartutako Orioko etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-erregelamenduaren aldaketa honek, eta Orioko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren kontratazio publiko berrian txertatzeko egokitu dela erregelamendua. Bukatzeko, adierazten du oso pozik dagoela Orioko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren baldintzak arautzen dituen hitzarmen berria sinatu izanarekin, eta zerbitzua ematen duten langileak ere gustura geratu direla aldaketarekin.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO GAZTERIA- ETA KIROL-TEKNIKARIAK AURKEZTUTAKO ESKAERA BATERAGARRITASUNARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Julen Idarreta Cardona gazteria- eta kirol-teknikariak, Orioko Udaleko bitarteko funtzionarioak, bateragarritasunari buruzko eskaera bat aurkeztu dio Udalari (sarrera-data: 2024ko martxoaren 6a; sarrera-zenbakia: 1065), hitzez hitz honela dioena:

Urte batzuetan boluntario gisa aritu ostean, judoko elkarteak eskaera egin dit judoko saioetan egiten dudan kolaborazioa lan-kontratu bidezkoa izateko.

Horregatik guztiagatik, eta judoko klubean emango ditudan saioak Orioko Udalean daukadan lan-ordutegiarekin bateragarria delako, eta jasoko dudan ordainsaria Bateragarritasun legeak ezarritakora atxikiko dela hitzemanaz, eskatzen dut Orioko Udalean daukadan Gazteria- eta Kirol-Teknikari postua Donostiako Judo Klubean entrenatzaile lanekin bateragarri izateko baimena.

Eskaera horri erantzuteko, Orioko Udaleko administrazio orokorreko teknikariak txosten bat egin du, hitzez hitz honela dioena:

Eskaera honi erantzuteko, 53/1984 Legea, abenduaren 26kora, Administrazio Publikoen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzkora, jo behar da. Lege horrek, printzipio orokor gisa ezartzen du legearen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek ezin izango dute, ez beren kabuz ez ordezkapen bidez, jarduera pribaturik egin, izaera profesionalekoak barne, beren kontura edo erakunde edo partikularren mende edo zerbitzura, baldin eta jarduera horiek zuzenean lotuta badaude destinatuta dauden sail, organismo edo erakundearekin.

Legeko 2.c) artikuluan xedatzen denez, lege honen aplikazio eremuaren barnean sartzan dira "Toki-korporazioetako eta haien mendeko erakundeetako langileak"; eta beraz, bateraezintasuna dute bigarren lanpostu bat betetzeko, izan sektore publikoan edo izan sektore pribatuan.

Hala ere, legeak eskumena ematen dio Udalbatzarrari langile publikoei zenbait kasutan bateragarritasuna onartzeko. Horretarako, honako baldintza hauek eskatzen dira:

- 1. Bateragarritasuna onartzeak interesdunaren lanaldia eta lan ordutegia ez aldatzea.*
- 2. Bigarren lanpostu horretako lan-ordutegia ez izatea Administrazio Publikoko asteko lanaldiaren erdia edo gehiago.*
- 3. Bateragarritasuna onartuko zaion jarduera horretan, bere lanpostu publikoa dela eta, azken bi urteetan esku hartu ez izana edo etorkizunean hartu behar ez izatea.*
- 4. Enpresa edo erakunde pribatuetako administrazio-kontseiluetako edo zuzendaritza-organoetako kide ez izatea, baldin eta horien jarduerak zerikusi zuzena badu eragindako langileak zerbitzuak ematen dituen sail, organismo edo erakundeak kudeatzen dituenekin.*
- 5. Bigarren lanpostua sektore publikoarekin zerbitzu emakida, obra edo hornidura kontratuak dituen enpresa bateko karguduna ez izatea.*
- 6. Administrazio Publikoan duen lanpostuagatik jasotzen dituen ordainsarien artean, osagarri espezifikoa ez dadila izan oinarritzko ordainsarien ehuneko 30 baino altuagoa.*

Ordutegiari dagokionez, eskaerarekin batera aurkeztu duen kontratu-zirriborroan, asteko lanaldia 8 ordukoa izango dela zehazten da, astelehen eta ostiraletan 18:00etatik 22:00etara; eta beraz, ez da Udaleko lanaldiaren erdira iristen. Udaleko lanpostuaren ordutegiarekiko bateragarritasunari erreparatuta, Udal-jardunak ordutegi finkorik ez badu ere, egia da tarteka bilerak izaten direla arratsalde eta horrek oztopatu egin lezakeela.

Langileak eskatu duen bateragarritasunak bigarren, hirugarren eta laugarren baldintzak beteko lituzkeela ondoriozta daiteke, izan ere, egingo duen jarduerak ez du zerikusi edo harreman zuzenik egun zerbitzuak ematen dituen sailarekin, halaber, lana egingo lukeen enpresak ez du Udalarekin kontraturik hitzartuta.

Azkenik, langileak Udalean dituen ordainsariak aztertu behar dira, edozein eratako bateragarritasunik egokituko litzaiokeen ala ez zehazteko. Eskatzaileak betetzen duen lanpostua Orioko Udaleko Gazteria- eta Kirol-Teknikariarena da, A2 sailkapen taldean integratuta dagoena, destino osagarria Udalhitzeko 17. mailakoa duena eta urteko osagarri espezifikoa 21.963,19 eurokoa duena.

Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko legeak 16.4 artikuluan esaten duen eran, langile bati bateragarritasuna onartuko bazaio, bere lanpostuari dagokion osagarri espezifikoak oinarrizko ordainsarien (antzinatasunagatiko hirurtekoak kenduta) ehuneko 30 gainditzen ez duelako da.

Gazteria- eta Kirol-Teknikariaren urteko ordainsariak kalkulatzeko, soldata (1.124,85€ hilean) eta aparteko ordainsariak (3.788,36€ hilean, bi aldiz urtean) hartu behar dira kontuan; beraz, kontzeptu horien baturak urteko 21.074,91 euro ematen du. Osagarri espezifikoaren kontzeptuan urtean dagozkion 21.963,19 euroek nabarmen gainditzen dute legeak ezartzen duen ehuneko 30eko muga hori eta beraz, argi dago bateragarritasuna onartzeko funtsezkoa den azken betekizun hori betetzen ez duela.

Horregatik guztiagatik, eta ikusita Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legearen 16.4 artikulua ezarritako baldintza betetzen ez dela, proposatzen diot Barne Antolaketako Batzorde Informatzaileari atzera botatzeko Julen Idarreta Cardonak Udal erregistroan 2024ko martxoaren 6an aurkeztutako 1065 eskaera.

Nolanahi ere, Barne Antolaketako Batzorde Informatzailearen proposamena Orioko Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu beharko zaio, bateragarritasunaren inguruko erabakia har dezan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko martxoaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU KONTRAKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ATZERA BOTATZEA Udaleko gazteria- eta kirol-teknikari Julen Idarreta Cardonak bateragarritasunari buruz aurkeztutako eskaera, goian azaldutako arrazoiengatik.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, PENTSIODUN GUZTIEK 1.080 EUROKO DIRU-SARRERAK IZATEA BERMATZEARI BURUZ, 14 ORDAIN SARITAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

EHPMk Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak zuengana jotzen du ORIOKO Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.

Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua eta osoa. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu erreibindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari honekin hasten da:

«EHPMk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxienerako pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxienerako pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxienerako pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu.»

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxienerako diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxienerako pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioen balioa EZ handitzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 14. orrian ikus daitekeen bezala: «... egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGS Lanbide arteko Gutxienerako Soldata 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxienerako pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxienerako pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxienerako Pentsioan LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea».

Gaur egun, bizi-kostuaren hazkunde esponontziala dela eta, gero eta pentsiodun gehiagok galtzen dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitua izateko aukerak, elikadura osasungarria, haien osasuna eta mendekotasunari erantzuteko arreta eraginkorra bermatzea, etab. Gaur egun, EAEko 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik; gehienak emakumeak dira.

Gutxienerako pentsioaren aldagai guztiak emakume izena dute. Genero-ezberdintasunean ikusten da hori, eta horren aurrekaria da soldaten ezberdintasuna eta emakumeen alde bateko esleipena ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari, ugalketaren eta zaintzen eremuan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonen ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

Horregatik, ORIOKO udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:

1. *EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.*
2. *EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2024ko martxoaren 21eko egun honetan.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko martxoaren 15eko bilkuran egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Iburguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil (EH Bildu), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzio botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa, pentsiodun guztiek 1.080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzeari buruz, 14 ordainsaritan, goian jasota dagoen terminoetan.

Emandako botoak azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela 2024ko martxoaren 15ean egindako Barne Antolaketa batzordean adierazitako arrazoi berengatik: bere talde politikoaren ustez, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa ez dago ondo bideratuta, mozioa Espainiako Gobernuari zuzendu behar zaiolako, hark baitauka eskumena gai honetan. Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak, berriz, ez dute eskumenik gaian.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH BILDUREn izenean, eta adierazten du bere talde politikoa guztiz bat datorrela Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioarekin eta bere egiten dituela mozioak planteatzen dituen bi eskaerak. Adierazten du, baita ere, oso kontuan hartzekoa dela Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 8 edo 10 urte daramatzala borrokan eta udalengana jotzen dutela, laguntza eske, beren aldarrikapen duin horiekin bat egin dezaten.

Horrenbestez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,